

- Aitor! Zatoz ona!
- Zer aita?
- Non dago dragoia?
- Zer dragoi? Nik ez dut dragoirik!
- Eta zer da atzean daukazun hori?
- Aaah! Sugar...



Aitorrek dragoia hartu eta baso barrura sartu zen korrika eta aita haserre bere atzetik zihoan. Aitorrek bere aita atzean ez zegoela ikustean, gelditu egin zen. Lehengo bidea hartu baino arinago, Aitorrek arriskua sumatu zuen, baina bidera bueltatu zen. Etxera heldu zenean, Aitor bere logelara sartu zen eta dragoia ohe azpian sartu zuen opil batzuen ondoan.

Handik gutxira Aitor basorantz abiatu zen baina ohikoa ez zen zerbait entzuten zuen. Ez zekien zer zen. Leku horretara heldu zenean ez zuen ezer ikusi, baina orro handi bat entzun zuen. Aitor beldurraren beldurrez etxera bueltatu zen. Baina dragoia hartzen bazuen eta basora bueltatzen bazen, orroa egin zuen animalia agertuko zen. Orduan, Aitorrek dragoia hartu zuen eta baso barrura sartu zen.

Leku horretara heldu zenean, Sugar lurrean utzi eta minutu batzuk geroago dragoi erraldoi bat agertu zen eta orroka hasi zen:

- Grrrrrrr!!!!!!!
- Zelako beldurra!!
- Ez eduki beldurrik Aitor. Ni Sugarren ama naiz.
- Baina, baina... zelan hitz egiten duzu? Eta zergatik dakizkizu gure izenak?
- Dragoi magikoa naizelako Aitor. Ni Zaragona deitzen naiz. Eskerrik asko Sugar zaintzeagatik.
- Ez horregatik! Baina joan egin behar zarete?
- Bai.
- Zergatik?
- Gizakiak ezin gaituelako ikusi. Baina tori txistu hau. Sugar ikusi nahi duzunean etorri hona eta putz egin. Sugar etorriko da zu ikustera. Agur!!!
- Agur!!!